

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BARRUNDIAKO UDALA

Kultura, kirol eta gizarte ekimenak eta natura sustatzekoak finantzatzeko dirulantzak. Deialdia 2025

BDNS (Identif.): 815451.

Diru-laguntza orokorrei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/815451>).

Otsailaren 18ko 097/2025, ebazpenaren laburpena, Kultura, kirol eta gizarte ekimenak eta natura sustatzekoak finantzatzeko dirulaguntzen deialdia 2025.

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17.3b eta 20.8a artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz, testu osoa Diru-Laguntzen Datu Base Nazionalean (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>) kontsulta daitekeen deialdiaren laburpena argitaratzen da.

Lehenengoa. Onuradunak

Diru-laguntzen onuradunak izango dira Barrundiako udalerrian erroldaturik dauden elkarten eta/edo pertsona fisikoen edo udalerrian bertan jarduerak eta zerbitzuak ematen dituztenen kultura, kirol eta gizarte ekimenak eta natura sustatzekoak.

Bigarrena. Diru-laguntza ematearen xedea

2025 urtean kultura, kirol eta gizarte ekimenak eta natura sustatzekoak finantzatzea.

Hirugarrena. Oinarri araupetzaileak

Udalbatzak, 2025eko abenduaren 5ean egindako batzarrean, kultura, kirol eta gizarte ekimenak eta natura sustatzekoak finantzatzeko araupetuko duten oinarriak onartu zituen.

Diru laguntza oinarriak, deialdia eta eskabide ereduak Barrundiako Udaleko web orrialdetik jaitsi ahal izango dira: www.barrundia.eus.

Laugarrena. Zenbatekoa

Kopuru osoa: 5.000,00 euro.

Aurrekontu partidak: 334.481.005 eta 341.481.009.

Bosgarrena. Eskariak aurkezteko epea

Dokumentazioa aurkezteko epea 2025eko maiatzaren 31ra arte izango da.

Ozaeta, 2025eko otsailaren 28a

Alkate-udalburua
IGOR MEDINA ISASA